

IGNAZIAR BIDEA NAVARRETETIK PASATZEN DA

Informazio- orri hau Navarreteko Udaletxeko Kultura sailak, Navarreteko Parrokiak, Kultura Aholkulariek eta Navarreteko beste erakundeek banatzen dute (2013ko ekainaren 17a).

Ignaziar bidea Loiolako Iñigok bere konbertsioaren lehen hilabeteetan egin zuena da (1522). (Ikusi www.caminoignaciano.org eta behean aipatzen den liburuaren 267. or). Navarrete Loiolako Ignazioren bizitzaren bi garairen lekuko da: konbertsio aurrea eta ostea. Zenbait famatu Navarretetik pasatu ziren, baina Ignazio izan zen han gehien bizi izan zena.

IGNAZIAR BIDEA NAVARRETEAN

Elizatik abiatzen gara. Bertan Loiolako Iñigok bere konbertsio ostean berritu omen zituen hiru irudi daude: 'Santa María' (jatorriz 'Jesusen Andre Mariaren' basilizan, Najerako bidean) eta 'Virgen del Sagrario' (agian antzinako elizakoa). Hirugarren irudia 'Virgen del Buen Suceso' da, eta Entrena errepedearen ondoan zegoen, eta egun, Navarreteko etxebizitza pribatu batean (Ikusi 246, 163-167. or).

Elizatik ateratzean eskumarako bidea hartzen dugu Kale Nagusi Goretetik (246.or). Bertatik Iñigoren garaiko 'Argiztatuak' pasatzen ziren (167-168.or). Eskumatara muinoa dago, eta bertako gazteluan Iñigoren garaiko azken buruzagi komuneroa preso egon zen (246, 124-125. or).

Arku Plazaren ezkerrean Najerako Dukearen jauregia dago eta izkinan ezkutua. Egun mantentzen den Najerako Dukearen jauregi bakarra da. Iñigo bere agindupean egon zen gentil gizon gisa lau urtetan zehar (1517-1521). Erregearengana joan zenengan berarekin joan zen, Najera berririko konkistatzen lagundu zion (gudako ospiletan ez zuen parte hartu nahi izan) eta Iruña defendatzen gelditu zen frantsesen aurka, Dukea Nafarroako Erregeordea ere bazen eta. Hor zauritu zuten eta Loiolara eraman, non ebangelioak eta Santo Domingo eta Frantsizko Deunaren bizitza irakurtzen konbertitu zen. Lurralde Santura joatea erabaki zuen bertan Jesus bizi izan zelako.

Navarretetik pasatzean dukeari zegokion ordainsaria eskatu zion. “Y cobró los dineros, mandándolos repartir en ciertas personas...y parte a una imagen de Ntra. Señora... para que se ornase bien”. (162-163. or). Iñigok dirua eman zien pertsonen inguruan eztabaida asko egon dira. Aldonzaren testamentuan, dukearen alaba, 'María Villarreal de Loyola' agertzen da. Norbaitek Iñigoren alaba izan zitekeela esan zuen. Navarretean Iñigok benta batean ostatu hartu zuela suposatu zuten, Arku Plazaren izkinako 1. zenbakian, dukearen jauregiaren ondoan, eta ostalariarekin maitasun kontuetan aritu zela. Konbertsioa eta gero, Iñigok ez zuen benta berean ostatu hartu, baizik eta beheagoko 4. zenbakian, egun berrituta, Arrabal kalean. Zenbait argumentu daude, alde eta kontra, Iñigok konbertitu baino lehen alaba bat izan zuelari buruz. Honek ez dio meriturik kentzen Loiolako Iñigori. Arazoa, ziurtatzen duen dokumenturik ez dagoela da. Bestalde, garai horretan ohikoa zen seme- alaba naturalak aitortzea eta Iñigok ez zion inoiz honi erreferentziarik egin.

Navarretetik, konbertituta, Iñigok Manresaraino jarraitu zuen, non bere Izpiritu Ariketak idazteari ekin zion. Urte batzuk beranduago Parisen ikasi zuen eta graduatutako unibertsitate taldea osatu zuen eta gero “Jesusen Lagundia” edo jesuitak deitu izan ziren.

Aurreko datuak luzatuta eta bilduta daude honako liburuan “Los Años Riojanos de Iñigo de Loyola”. José Martínez de Todak idatzia, S.J, eta Logroñon eros daiteke (ARS liburudenda, Caballerías, 31-33; Telf 941-25 51 47) eta Najeran (M^a Teresa liburudenda, Mayor, 11, Telf 941-36 28 35).